

## SECCION AMENA.

### ARRATOI ZAR BAT TRANPAN ERORIA.

Ankaezurrerañoko kasaka batekin  
 Madrillen ibiltzen zan gure auzoko Chomin,  
 Zapel luzea eta esku-larruakin  
 Moztu gabe zituen katu-bisarrakin.  
 Aronz ononz oi zuen irago eguna  
 Indiano bat bere burua egiña:  
 ¿Nork itzik egiñ ari esan gabe, jauna.  
 Zinta bat zuelako, sitsak erdijana?  
 Ustez izango zala diruz ornitua,  
 Iksirik aiñ grabe ta ondo apaindua,  
 Arratoi zar bat beti ondoren dijua  
 Besteren bizkar sarri asetzen oitua.  
 Diru askocho duen gizona dek ori,  
 Zion, zeren etziok bere buruari  
 Ematen bear ainbat jan eta edari;  
 Begira matrallezur, lepo luze orri.  
 Paseatzalle ura zijoan lekura  
*Arratoi zarra* ere iskinchoka ara,  
 Baita ere ona non doan zelatara  
 Alkateak esanta, *katua aetara*....  
 Lukainkategi bati begira zegoan  
 Irechiaz chistua, Chomin bein batean  
 Aparta eziñikan alako moduan  
 Non etzuen sentitu *arratoia* ondoan.  
 Sartzen dio eskua poltsikoan kontuz  
 Ebazteko ustean ontzakoak erruz:  
 Itzulitzen zakio,—esanaz—jatzaputz!  
 ¿Nola egongo dek bat berritua diruz,  
 Bi urteren buruan enpleo gaberik  
 Baniok guchienez, eziñ biziturik?  
 Orduan *zelatari* arek oraturik  
 Para zuen berriro *kaiolan* sarturik.

CLAUDIO DE OTAEGUI.

Ondarrribian Uztaillren 7.an 1881.an

II,<sup>garren</sup> somaketaren askantza: Ojalia.  
 III,<sup>garre</sup> » » Zabala.